



Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2026/25

**TURISMO ARLOKO ELKARTEEI LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA, TURISMOA
DINAMITZATZEKO, SUSTATZEKO ETA AHOLKULARITZAKO JARDUERAK EGIN**

DITZATEN 2025eko URRIAREN 1etik 2026ko IRAILAREN 30era

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

2026ko urterako Iruñeko Udalaren Dirulaguntzaren Plan Estrategikoaren xedeetako bat da dinamizazio kanpainei laguntzea, besteak beste, honako gaiekin lotura dutenei: gastronomia, Done Jakue bidea, kongresuak, kirola, sanferminak eta balio turistikoa duten beste hitzordu kultural eta tradizionalak. Ekitaldi horien xedea Iruña sustatzea izan behar du. Plan horren 8. ildo estrategikoan (Turismoa) jasotzen da berariazko dirulaguntza-ildo bat Iruñeko turismo sektoreko elkarteei dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarritzko ildoekin guztiz bat datorren tresna da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako zinegotzi ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkari teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era bitarte (biak barne) hirian turismoa dinamitzatzeko eta hiria sustatzeko ekitaldiak edo proposamenak antolatu eta jasangarritasunari edo irisgarritasunari buruz sektoreko aholkularitza egiten duten turismoaren arloko elkarteei.

2025ean hasitako jardueren kasuan, ezin izanen dute laguntza hau jaso 2025-08-19an Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Zinegotzi Ordezkariak emandako ebazpen bidez onetsitako aurreko deialdian –Udalak 2025eko abuztuaren 28ko 171.n NAOn argitaratua– dirulaguntza jaso zutenek edo, jarduera horretarako laguntza eskatu eta egiteari uko egin ziotenek laguntza emateko 2026ko abenduaren 16ko ebazpena eman ondoren.

Dirulaguntza honetatik eratorritako dinamizazio jarduera edo ekitaldi publikoak 36/2024 Foru Legearen jasangarritasun irizpideekin eta Iruñeko ekitaldi jasangarrien Gidarekin bat etorriko dira.



2. Deialdiaren helburua:

Jarduera turistikoa dinamizatzen duten jarduketak egiten dituzten elkarte turistikoei laguntzea; sustapen horretan Iruñea turismo-helmuga gisa nabarmentzen da edo irisgarritasun eta jasangarritasun arloko enpresei aholkua ematen diete.

Dirulaguntza honetatik eratorritako dinamizazio jarduera edo ekitaldi publikoak 36/2024 Foru Legearen jasangarritasun irizpideekin eta Iruñeko ekitaldi jasangarrien Gidarekin bat etorriko dira.

Inongo kasutan ez dira diruz lagunduko hiriaren helburu estrategikoak eta 2030. urtea jomuga hartuta Iruñearen estrategia hausten duten jarduketak, ezta 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoarekin eta Marketin-planarekin bat egiten ez duten jarduketak eta Iruñeari onurarik ekartzen ez dizkieten jarduerak ere.

3. Ekintza, proiektu, jokamolde eta jarduera diruz lagungarriak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Dirulaguntzaren xede izanen dira Iruñeko udal-mugartean egiten diren eta honako jarduketa-ildo hauetan sartzen diren ekintzak; salbuespenez, dirulaguntzaren xede den inguruabarra Iruñeko udal-mugarteaz kanpokoa izanez gero, Udalaren interesen aldekoa izan beharko du, zuzenean edo zeharka.

DIRUZ LAGUNDUTAKO EKINTZAK:

- 3.1.- Hirian ekitaldiak dinamizatzeko ekintzak.
- 3.2.- Sustapen- eta publizitate-jarduketak, Iruñea turismo-helmuga gisa nabarmentzen dutenak.
- 3.3.- Sektoreari aholkularitza jasangarritasun eta irisgarritasun arloan.

3.1. DINAMIZAZIO-EKINTZAK

Dinamizazio-ekintza gisa definitzen dira –zati batean edo osorik Iruñean eginda– edozein motatako ekitaldiak zein jarduketak sustatzen dituztenak, izan kulturala, kirolekoa, naturakoa, gastronomikoa zein biltzarretakoa, baldin eta esperientzia, ideia eta ezagutzen trukea bideratzen badute Iruñean (dastaketak, lantegiak, hitzaldiak eta abar). Ekitaldi zein jarduketa horiek helburutzat izan behar dute baliabideak, produktuak edo azturak ezagutzea edo nabarmentzea; eta turistak Iruñera erakartzea.

Ondoko baldintza hauek bete behar dituzte dirulaguntza jaso nahi duten jarduketek:

- Hala gai nagusiak nola antolatzen diren jarduerak harreman estua izan behar dute horiek sustatzen dituen entitatearekin.
- Sustatzen diren jarduketak Iruñeko Plan Estrategikoko marketin-planean sartutako produktu turistikoren bati lotuko dira.
- Azken publiko-xedea publiko-turista izanen da nagusiki.
- Ez dira diruz lagunduko hiriko Alde Zaharrean egin eta bide publikoa hartzen duten dinamizazio-ekitaldiak.
- Komunikazioa xede-merkatuari egokituko zaio eta betiere euskaraz eta gaztelaniaz eginen da deialdi hau argitaratu eta gero.
- Ez dira dirulaguntzaren xede izanen edozein komunikazio-euskarritako gastuak, baldin eta ez badiote publizitateari ematen jarduketa horietarako Iruñeko Udalak emandako dirulaguntzari, publizitateari buruzko E apartatuan ezarritakoarekin bat.

3.2. SUSTAPEN ARLOKO JARDUKETAK

Diruz lagunduko dira Iruñea helmuga turistiko gisara sustatzea helburu duten honako jarduketa-tipologia hauek:

- a) Azoka, workshop eta aurkezpenetara joatea
- b) Argitalpenak, liburuxkak eta turismo-gidak



c) Webguneak

a) Azoka, workshop eta aurkezpenetara joatea:

Laguntza-eskaeraren justifikazio izanen dira azoka batean standa bat paratzea, kontaktuen agenda batez arduratzea edo produktu edo ekintza espezifiko bat aurkeztea, baldin eta parte-hartzeak Iruñeko Udaleko Turismo Zerbitzuaren oniritzia badu, edo, gutxienez, Nafarroako Gobernuako Turismo Departamentuak onetsitako azoka-planaren barruan badago.

b) Argitalpenak, liburuxkak eta turismo-gidak, hala euskarri fisikoan nola birtualean:

Eskuorri berriak sortzea edo aurreko euskarriak eguneratzea lagunduko da, betiere formatu digitalean egin eta Iruña helmuga turistiko gisa sustatzea badute xede, eta bisitari eta turistendako bada; baita enpresa-sektorearendako argitalpenak, xede bakartzat badute jasangarritasun edo irisgarritasun arloko jardunbide egokiak hedatzea.

Argitalpenen hizkuntza banaketa merkatuetara egokitu beharko da eta Iruña helmuga turistiko gisa nabarmentzen duen atal bat eduki beharko dute.

c) Webguneak:

Dirulaguntzaren xede izanen dira honako jarduera hauek:

- Lehendik bazegoen eta, turistari eta bisitariari zuzendutako webgune bat egokitzea, hiriko ekitaldi eta eskaintza turistikoari buruz informatzeko, 2023-2029 aldirako Turismoko Plan Estrategikoan jasotako produktu turistikoaren arabera.

- Elkartearen webgunea egokitzea, jasangarritasuna hobetu eta irisgarritasun turistikoari buruzko programez hiriko sektore turistikoa informatu, sentsibilizatu eta laguntzeko.

Horretarako, webguneek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

- Bisitaria eta turistak azken bezerotzat duten webguneek xede-publikora egokitu beharko dute eta orri nagusian Iruña nabarmendu helmuga turistiko gisa.

- Hainbat gailutan (responsive) erabiltzeko egokituta egonen dira.

Ez dira dirulaguntzaren xede izanen edozein komunikazio-euskarritako gastuak, baldin eta ez badiote publizitateari ematen jarduketa horietarako Iruñeko udalak emandako dirulaguntzari, publizitateari buruzko E apartatuan ezarritakoarekin bat.

3.3. SEKTORE-AHOLKULARITZAKO JARDUKETAK JASANGARRITASUN ETA IRISGARRITASUN ARLOAN

Elkarrekin Iruñeko turismoko eta ostalaritzako enpresendako egiten dituzten jasangarritasun edo irisgarritasun arloko aholkularitza-lanetarako gastuak lagunduko dira, baita elkarrekin berak jasotako aholkularitza ere.

Hedatzeko materiala euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko da.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 50.000 €

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 90/43200/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: 1. Jarduera bakoitzaren puntuazioa (Pi) H apartatuan ezarritako irizpideekin bat kalkulatu da.

2. Jarduera bakoitzaren puntuazio haztatua (PHi) kalkulatzeko "i" jardueraren aurrekontu onartua (AOi) jarduera horren puntuazioarekin (Pi) biderkatu beharko da ($PHi = Pi \times AOi$).

3. Puntu haztatuaren balioa (PB) kalkulatzeko, puntu bakoitzaren aurrekontu-kontsignazioa zatitu



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

beharko da apartatu bakoitzeko puntu haztatu guztien baturarekin (PHi). $PB=50.000 \text{ €/PHi}$ guztien batura
4. Jarduera bakoitzerako dirulaguntzaren zenbatekoa (betiere eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu dutenetan) kalkulatzeko, jarduera bakoitzeko guztizko puntuazio haztatua (PHi) biderkatu beharko da puntu haztatuari emandako balioaz (PB). Dirulaguntzaren zenbatekoa=PHi x PB

5. Lortutako dirulaguntzak jardueraren aurrekontu-defizita gainditzen badu, defizitaren zenbatekoa emanen da.

6. Dirulaguntzaren zenbatekoa banatu ondoren ez bada horretarako gaitutako aurrekontu guztia esleitu, beste banaketa bat eginen da sistema bera aplikatuz soberako zenbatekoari, aurrekontu-partidaren % 100 banatu arte edo diruz laguntzen ahal den ehunekoaren gehieneko laguntza eskuratu arte.

Onuradun bakoitzari jarduera bakoitzeko emanen zaion gehieneko zenbatekoak ezin izanen du gainditu onetsitako aurrekontuaren % 50. Jarduera bakoitzerako emandako dirulaguntzaren eta jarduera bakoitzari zuzenean egotzen ahal zaizkion diru-sarreraren arteko batuketa ezinen da izan diruz lagundutako jardueraren zenbatekoa baino handiagoa. Beraz, jarduerak banaka aztertuko dira bakoitzari dagokion dirulaguntza emateko.

Onartutako aurrekontutzat jotzen da deialdi honen L apartatuan jasotakoarekin bat diruz laguntzen ahal diren irizpideak betetzen dituen jarduerari dagozkion gastuen zenbatekoa, zeina dirulaguntza emateko fasean zehaztuko baita; eta defizitzat, berriz, onartutako aurrekontuari lortutako diru-sarrera guztien batura kenduta lortzen den zenbatekoa.

4. Hainbanatzeko aukera:

BAI EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

5. Urte anitzeko deialdia: BAI EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	50.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko betekizunak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: BAI EZ

- Legearekin bat eraturik egotea eskaera aurkezten duten datan.

- Helbide soziala edo egoitza Iruñean edukitzea.

- Eguneratuak izatea zergei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak.

- Egunean izatea Iruñeko Udalaren aurrekontuen kargura emandako aurreko dirulaguntza-deialdietan ezarritako betebeharrak.

- 2024ko urriaren 1etik aitzina Nafarroako Turismo Erregistroan behar bezala izena emanda egotea.

- Iruñeko udal-mugartean turismo arloko elkartekideak edukitzea, eta horiek izatea diruz lagundutako jardueren onuradunak.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuesita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2. artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

BAI EZ



2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

BAI EZ

Iruñeko marka turistikoa, www.visitpamplonairuña.com webgunea eta Biosphere ziurtagiriaren logotipoa derrigorrez sartu beharko dira jardueretarako sortutako euskarri guztietan (liburuxkak, gidak, mugikorretarako aplikazioak, webguneak, standak, kartelak, telebistako iragarkiak, bideoak, etab.). Halaber, derrigorrezkoa izanen da euskarri guztietan honako testua sartzea. "Iruñeko Udalaren laguntzarekin".

Biosphere ziurtagiriaren logotipoa nahitaezkoa izanen da deialdi hau argitaratzen den unetik aitzina.

- Deialdi honen kargura dauden dirulaguntzen onuradun diren entitate eskatzaileek nahitaez adierazi beharko dute –izapide telematikoan dagokion laukiaren bidez– ea ezinbestean bete behar dituzten Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan ezarritako gardentasun-betebeharrak. Bete behar badituzte, izapide telematiko horretan bi agiri txertatu beharko dituzte: batetik, entitatearen zuzendaritza-karguen organigrama, haien eginkizunak, arduraldiak eta ordainsariak biltzen dituen agiria; eta bestetik, entitateak eskuragai dituen urteko azken kontuak biltzen dituenak.

Elkarte onuradunek Jasangarritasun Plan sinplifikatu bat aurkeztu behar dute antolatzen duten ekitaldi bakoitzeko, hondakinen kudeaketa bereizita eta erabilera bakarreko plastikorik ez dela egonen bermatzeko.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen



tamaina berekoa izanen da gutxienez.

- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: “[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da”.
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan, Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: BAI EZ
Xede-epea:

F. ALDAKETAK PROIEKTUAN:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

BAI EZ

Aurreikusi gabeko inguruabarren bat gertatuz gero, eta salbuespenez, proiektuan aldaketak egiten ahalko dira aldaketa-eskaera bat aurkeztuta; bertan aldaketez gain, horiek eragindako inguruabarren justifikazioa jaso beharko da, eta edozein kasutan, beharrezkoak izanen dira honako hauek:

- Alor kudeatzaileak aurretik baimena ematea.
- Aldaketa eragin duten egintzen berri izan eta hurrengo 10 egun balioduneko epean jakinaraztea
- Funtsezko aldaketak ez izatea.

Honako hauek hartuko dira funtsezko aldaketatzat:

- nori zuzenduta dauden, helburu, esperotako emaitza eta daten ingurukoak.
- Aurkeztutako aurrekontuaren partidak aldatzen dituztenak, baldin eta horien batura, guztira, emandako dirulaguntzaren % 20tik gorakoa bada.

Aldaketak balorazio-irizpideei eraginez gero, P letrako justifikazio-fasean aipatutakoaren arabera doituko da.

G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (<https://sedeelectronica.pamplona.es/eu>) argitara emandako “Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat” delako izapidearen bidez.

Deialdi honetan ez dira onartuko telematikoki aurkezten ez diren eskaerak, izan ere, eskatzaile guztiak Administrazio Publikoarekiko harremanak elektronikoki edukitzera beharturik daude.

2. Eskaerak aurkezteko epea: eskaerak eta eskatutako agiriak aurkezteko epea hilabetekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:



Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) apartatuak aipatzen dituen agiriak aurkeztuko beharko dira.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalarari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalarari baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde aurretik ebazpena emanen delarik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

Aurrekoan xedatutakoa gorabehera, Udalak edo haren mendeko erakunde autonomoek ezin badute agiriren bat eskuratu, eskatzaileei eskatzen ahalko diete hura aurkezteko, edo, bestela, agiria zein betekizuni dagokien eta horiek beste bide batzuk erabiliz egiaztatzeke, betiere ebazpen-proposamena egin baino lehen.

Entitate eskatzaile bakoitzak dirulaguntza jaso ahalko du aurretik aipatutako edozein jarduketa-ildori (3.1, 3.2 eta 3.3) lotutako jarduketa bat edo gehiago egiteko. Ekintzetako bakoitza banaka baloratuko da, koadro honetako H) letran ezarritako irizpideekin bat.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeakoak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagirak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

Sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onesten duen 203/2021 Errege Dekretuaren 32. artikuluan ezarritakoaren arabera, ordezkariak egiaztatzen ahalko da Zuzenbidean baliozkoa izan eta egiaztagarri zehatza den edozein bitarteko erabiliz, besteak beste, honako hauek:

- "Apud acta" ahalordetzea, norbera aurrez aurre agertuta erregistro-bulegoetan, edo elektronikoki agertuta dagokion egoitza elektronikoa edo elkartutako egoitza elektronikoa.
- Egiaztaturik izatea Administrazio Publiko eskudunaren ahalordetzeen erregistro elektronikoa edo erregistro elektronikoa partikularretan izena eman izana.
- Ordezkariendako ziurtagiri kualifikatua.
- Matricea notario-artxibo batean duen dokumentu publikoa, edo merkataritza-erregistro batean egindako izen-ematea



b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoan ezarritakoarekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluaarekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalguztari bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena izapide telematikoan emandako jarraibideekin bat egingen da. BAI EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

I. ERANSKINA.

g) Erantzukizunpeko adierazpena, BEZaren gainean, II. ERANSKINAREKIN bat.

h) Erantzukizunpeko adierazpena, non jasoko baitira, eskabidea aurkezteko datan, honako alderdi hauek: bazkide kopurua guztira, eta Iruñean kokatutako bazkide kopurua, III. ERANSKINAREKIN bat.

i) Nafarroako Turismo Erregistroan izena emana duela egiaztatzekeko agiria

.

Modu telematikoan egiten ez diren izapideetarako, agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzekeko agiriak, jatorrizkoak edo kauditatuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekartzen ahal dituen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:



Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. BAZKIDE-ENPRESEN GUTXIENEN PARTE-HARTZEA

Jarduera bat diruz lagundu ahal izateko, Iruñean kokatutako gutxieneko bazkide kopurua eta turismo arloko enpresen parte-hartzea izan beharko du, Nafarroako Turismoari buruzko 7/2003 Foru Legearekin bat zehaztuak eta jarraian ezartzen den bezala:

- Sustapen- eta publizitate-jardueretarako: Iruñeko udal-mugaratean ezarritako turismo arloko enpresen bazkide kopurua, gutxienez, proposatutako ekintzetan parte hartu eta zuzenean horien onura ateratzen duten elkarteko bazkide guztien % 20 izanen da, edo bestela, Iruñeko udalerrian kokatuta dauden eta sustapen-ekintzan parte hartu eta horren onura ateratzen duten turismo arloko enpresak 15 izanen dira gutxienez.

- Dinamizazio-jardueretarako: Iruñeko udalerrian kokatuta dauden eta ekintzan parte hartu eta zuzenean horren onura ateratzen duten enpresak 15 izanen dira gutxienez.

Ez dira baloratuko aurreko atalean adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten jarduerak.

2. JARDUERAK BALIOESTEA: EGIN ASMO DIREN JARDUKETEN EDUKIA, KALITATEA ETA INTERES TURISTIKOA

Aurkezten diren jarduerak baloratzeko eta dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, Balorazio Batzordeak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan, eta horiei, puntuaketa emanen zaie betetako azpiatal bakoitzeko puntu guztien arabera, eta bestela, 0 puntu emanen zaizkie:

2.1.-DINAMIZAZIO JARDUERAK (100 puntu, gehienez ere)

Honako jarduketa hauek balioetsiko dira jarraian zehaztutako gehiengo puntuazioarekin:

a. Jardueran parte hartuko duten enpresen kokapena (20 puntu)

Parte hartzen duten enpresa guztien % 10 edo gutxiago Alde Zaharrear badaude: 20 puntu

Parte-hartzen duten enpresen % 11 eta % 25 artean Alde Zaharrear badaude: 10 puntu

Parte-hartzen duten enpresen % 26 baino gehiago Alde Zaharrear badaude: 0 puntu

b. Urtarokotasuna haustea (20 puntu):

Ekintza urtarrilean, otsailean, martxoan, azaroan eta abenduan egiten bada: 20 puntu

Ekintza apirilean, maiatzean, ekainean, irailean eta urrian egiten bada: 10 puntu

Ekintza uztailean eta abuztuan egiten bada: 5 puntu

c. Ekitaldia finkatzea (10 puntu)

Ekitaldi berria: 0 puntu

2 urtez egindako ekitaldia: 2 puntu

3 urtez egindako ekitaldia: 4 puntu

4 urtez egindako ekitaldia: 6 puntu

5 urtez edo gehiagoz egindako ekitaldia: 10 puntu

d. Komunikazio-plana (20 puntu)

Komunikazio digitaleko plan bat badu, merkatuka banatua: 15 puntu.

Komunikazio digitaleko plan bat badu, Nafarroan: 10 puntu.

Jarduera Udalaren turismo-sareetan hedatzen eta etiketatzen bada: 5 puntu.

Komunikazio digitaleko planik ez badu eta ez bada Udalaren turismo-sareetan etiketatzen: 0 puntu.

e. Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legean galdatutako irigarritasun-estandarrak betetzea (15 puntu)

3 puntu emanen dira ezarritako neurri jasangarri bakoitzeko, 15 puntura bitarte.



f. Jasangarritasun-plana: Ingurumen-jasangarritasuneko eta ekonomia zirkularreko neurria sartzea jarduera diseinatzean, Jasangarritasun-gidarekin bat (15 puntu).

- Ekitaldia / jarduera diseinatzean Ingurumen-jasangarritasuneko eta ekonomia zirkularreko neurriak sartzen baditu, Jasangarritasun gidarekin bat: 15 puntu.
- Ekitaldiak jasangarritasun plan bat badu: 10 puntu.
- Ekitaldiak ez badu jasangarritasun planik: 0 puntu.

2.2. SUSTAPEN- ETA PUBLIZITATE-JARDUKETAK, IRUÑA HELMUGA TURISTIKO GISA NABARMENTZEN DUTENAK

2.2.1.- Azoka, workshop eta aurkezpenetara joatea (100 puntu, gehienez)

a. - 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoko merkatu potentzialak (30 puntu):

- Nazioartekoa (Europa), 30 puntu
- Nazionala, ez hurbilekoa: 20 puntu
- Hurbileko merkatua: 10 puntu

b. - Tokia (30 puntu):

- Espainiaz besteko herrialdea (Ipar Euskal Herria izan ezik): 30 puntu
- Espainia (Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Aragoi eta Ipar Euskal Herria izan ezik): 20 puntu
- Hurbileko merkatuak (Euskal Autonomia Erkidegoa, Aragoi eta Ipar Euskal Herria): 10 puntu
- Nafarroa: 5 puntu

c. - Ekintza egiteko behar diren guneen kudeaketaren eta gastuen arabera (30 puntu):

- Zorua, guneak, lekuak, erakusmahaiak, etab. banaka alokatzea: 30 puntu
- Standa, erakusmahaia, mahaia eta abar partekatuta: 20 puntu
- Bertaratzea bakarrik: 10 puntu

d. - Ekintzan erabilitako materialak (10 puntu):

- Elkartearen beraren materiala: 10 puntu
 - Udaleko Turismo Zerbitzuak argitaratutako materiala (Planoa, liburuxka, bideoa eta aurkezpenak): 5 puntu
- Beste material bat: 0 puntu

2.2.2.- Argitalpenak eta turismo-gida fisiko edo digitalak (100 puntu, gehienez):

a.- Hiriko turismoari buruzko berariazko atal publizitario bat txertatzea bisitariendako gidetan, edo jasangarritasunari edo irisgarritasunari buruzko politikari buruzko informazioa sektore turistikoari bideratutako argitalpenetan:

- Gidaren edo argitalpenaren orrialde erdia: 10 puntu
- Orrialde bat: 20 puntu.
- Orri bat baino gehiago: 30 puntu

b.- Jasangarritasun edo irisgarritasun arloan jardunbide egokiak hedatzea bisitari edo turistei, edo sektore turistikoari zuzendutako jasangarritasun edo irisgarritasun praktikak (10 puntu)

- Argitalpenak jasangarritasuneko jardunbide egokiak baditu: 5 puntu
- Argitalpenak irisgarritasuneko jardunbide egokiak baditu: 5 puntu

c.- Turismoa hedatzeko materialaren iraupena (30 puntu)

- Urte bateko edo gehiagoko iraupena duten liburuxkak edo gidak: 30 puntu
- Unean uneko jardueren liburuxkak, agendak edo aldi baterako eskaintzak: 20 puntu



- Beste material batzuk, beste iraupen batzuekin: 10 puntu

d.- Argitaratutako materialetako hizkuntzak (20 puntu), 2023-2029 aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoan xede-talde gisa ezarritakoetara doitu eta identifikatutako hizkuntzetan egin badira.

- Euskara: 5 puntu
- Gaztelania: 5 puntu
- Ingelesa: 5 puntu
- Frantsesa: 5 puntu

e.- Komunikazioa-plana (10 puntu)

Argitalpenak badu komunikazio-plana: 10 puntu

Argitalpenak ez badu komunikazio-planik: 0 puntu

2.2.3. Webguneak (gehienez 100 puntu)

a.- Iruña helmuga turistikoa gisa sustatu eta publizitatea egiteari laguntzea (50 puntu):

Bisitariendako eta turistendako webguneetarako:

- Webguneak Iruña sustatzeko berriazko slide-atala badu: 20 puntu.
- Webguneak Iruñetik Nafarroako beste toki batzuetara eginen diren bisiten turismo-informazioa sartzen badu: 10 puntu.
- Iruña helmuga turistikoa jasangarriari buruz berriazko informazioa eta Biosphere ziurtagiriaren logotipoa sartzea: 20 puntu.

Enpresa sektoreari zuzendutako webguneetarako:

- Webguneak turismo arloan Udalak egindako proiektuei buruzko informazioa duen berriazko slide-atal bat badu eta berriaz hedatzen bada www.visitpamplonairuña.com/area-profesional webgunean: 25 puntu.
- Iruña helmuga turistikoa jasangarriari buruz berriazko informazioa eta Biosphere ziurtagiriaren logotipoa sartzea: 25 puntu

b.- Webgunea sortzea (20 puntu):

- Edukien eguneraketa adierazgarria bada: 10 puntu
- Webgunea gutxienez gaztelaniaz eta euskaraz badago: 10 puntu

c.- Turismo-webgune mota (20 puntu)

- Webgunea iraunkorra: 20 puntu
- Elkartearen jarduera-egutegiko unean uneko ekitaldi bati lotutako webgunea: 10 puntu.

d.- Webguneak web-irisgarritasunerako nazioarteko estandarren bat betetzea; esaterako, WCAG 2.0, ISO: ISO/IEC 40500 edo baliokideren bat (10 puntu)

- Betetzen badu: 10 puntu.
- Ez badu betetzen: 0 puntu

2.3. SEKTOREARI AHOALKULARITZAKO JARDUKETAK JASANGARRITASUN ETA IRISGARRITASUN ARLOAN (gehienez 100 puntu).

a. Jasangarritasun arloan enpresa sektoreari zuzendutako aholkularitza programari buruzkoak (gehienez 70 puntu).

- Badu enpresa sektoreari zuzendutako jasangarritasunari buruzko aholkularitza programa bat, 30 puntu.
- Jasangarritasun arloko aholkularitza zerbitzua hedatzeagatik, 15 puntu: erabilitako hedabide mota bakoitzeko 3 puntu emanen dira (sare sozialak, newsterrera, webgunea, whatsapp, aldizkaria...)



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

elkarte-bazkideen artean jasagarritasun plana sustatzeko.

- Jasagarritasun plana sustatzeko komunikazioak bidaltzeko formatua, 10 puntu:
 - Sustapena digitala bada: 5 puntu
 - Sustapena analogikoa bada: 5 puntu
- Biosphere ziurtagiriari buruzko informazioa eransteagatik, 15 puntu.

b. Irisgarritasunaren arloan enpresa sektoreari zuzendutako aholkularitza programari buruzkoak (gehienez 70 puntu)

- Badu enpresa sektoreari zuzendutako irisgarritasunari buruzko aholkularitza programa bat, 15 puntu.
- Irisgarritasuneko aholkularitza-zerbitzua hedatzeagatik: 3 puntu emanen dira elkarte-bazkideen artean irisgarritasuna sustatzeko erabilitako hedabide bakoitzeko, 15 puntu gehienez.

2.1 eta 2.2 apartatuetan ez bada gutxienez 50 puntu erdiesten, jarduera horretarako eskatutako dirulaguntza ukatzea ekarriko du.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua:	Mikel Armendáriz Barnechea, Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko zinegotzi ordezkaria / Ordezkoa: beste zinegotzi ordezkari bat.
Batzordekideak:	
1.	Carlos Andrés Uranga, Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorreko zuzendaria/Beni Soteras Ramírez Alor horretako idazkari teknikoa
2.	María Bezunartea Barasoain, turismoko burua/Maria Isabel Gómez, turismoko teknikaria
3.	Ana Gonzalez Cortea, turismoko teknikaria/Alberto Tomás, turismoko teknikaria
Idazkaria:	Ángela Sanz Rives, Iruñeko Udaleko zuzenbidean lizentziaduna/Ordezkoa: Udalaren Aholkularitza Juridikoko beste zuzenbide-lizentziadun bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epeak ezin du izan sei hilabete baino gehiagokoa.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berriaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta hura eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: BAI EZ
- Tramitatze eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: BAI EZ
- Epea zenbatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK:

1. Gastu diruz lagungarrien zehaztapena:

Gastu diruz lagungarritzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek dira diruz lagungarriak:

ENTITATEAREN ZEHARKAKO GASTUAK, ADMINISTRAZIOKOAK ETA FUNTZIONAMENDUKOAK

Jarduera edo proiektu bakoitzeko, emandako dirulaguntzaren edo guztira justifikatutako gastuaren (gastuak dirulaguntza baino gutxiago izanez gero) % 15 egozten ahalko da, gehienez ere, diruz lagundutako jarduera egiten den aldiari dagozkion zeharkako gastuetarako. Gastu horiek honako hauei buruzkoak izaten ahalko dira:

- a) Entitatearen egoitzaren alokairu-gastuak.
- b) Argi-, ur- eta telefono- zein Internet-gastuak.

1.2- GASTU ZUZENAK:

DINAMIZAZIO-EKINTZAK

Apartatu honen barnean sartzten ahalko dira jarraian zehazten diren gastuak, baldin eta horiek ez badiete zuzeneko eta berehalako onura ekartzen elkarteko kideei elkarrearen berezko jardunaren parte izateagatik, jarduera egiteko beharrezkoak badira, eta Iruñeko udalerrian eginez gero.

Honako gastu hauek dira dirulaguntzen xede:

- Ekitaldi edo proposamenaren antolaketarekin zuzenean loturiko ezinbesteko gastuak. Adibidez: kale-giroztea, jantziak alokatzea, apaintzeko materialak, osasun-materialak, aseguruak, sustapen-produktu eta -materialak garraiatzea, muntaketa-gastuak, anbulantziak, altzariak edo megafonia-zerbitzuak



kontratatzea, musika-taldeak kontratatzea, eta abar. Ekintza guztiek harreman zuzena izan beharko dute elkarte sustatzailearekin, eta bazkide guztiak inplikatu edo zuzenean eragin beharko dute haiengan.

- Kanpoko laguntza antolatu eta koordinatzeko, prentsaurrekoak edo komunikabideen aurreko aurkezpenak barne: edo kanpoko eta espezializatua, proposamen inklusiboak edo ingurumen aldetik jasangarriak egiteko.

- Proposamena dinamizatzeko gastuen apartatu honetan sartzen ahalko dira honako ikuskizun eta animazio aktibo hauek: musika, antzerkia eta parekideak, betiere ekitaldiaren gai nagusiari balio espezifikoak ematen badiote eta berariaz baztertuta ez badaude.

- Ekitaldiaren edo proposamenaren komunikazio eta publizitate gastuak, baita xede-merkatuetara egokitzeko itzulpenak ere.

- Taldearen ostatu, garraio, ostalaritza eta lagun egite gastuak jardunaldiak, lehiaketak, famtrip-ak, bilera profesionalak eta antzeko ekitaldiak egitean.

- Eskuorriak, ekitaldirako berariazko kartelak eta horien egokitzapenak sustapen digitaleko ekintzetarako, betiere Iruña helmuga turistiko gisa nabarmentzen bada.

- Iruña helmuga turistiko gisa nabarmentzen den ekitaldiaren sustapenerako online marketin ekintzak.

- Ekitaldi beragatik ezin izanen zaie dirulaguntza bi entitate ezberdini eman.

Modalitate honetan EZ da inolaz ere dirulaguntzarik emanen honako gastu mota hauetarako:

- Ekitaldia egin ondoren ingurua edo instalazioak garbitzeko.

- Domeinua, Hostinga berritzea edo haren urteko kuota eta webgune, sare sozial edo antzekoen mantentze-lanetarako gastuak.

- Bazkari herrikoi eta instituzionalen gastuak.

- Ekitaldi instituzionalekin lotutako gastuak.

- Iruñeko Udalak lehentasunezko produktu turistikoak babesteko dirulaguntza-deialdian dagoeneko diruz lagundutako gastuak.

- Kontzertuak edo gaueko dantzaldiak. Horien parekotzat joko dira diruz laguntzen den ekitaldi edo proposamena justifikatzen duen elementu nagusiari berez lotutakoak jotzen ez diren gaueko ikuskizunak.

- Hitzaldiak eta erakusketak, dinamizazio-ekintzaren parte ez diren kasuetan.

- Bisitarien edo turisten garraio-gastuak, salbu eta dinamizazio-ekitaldiaren parte badira.

- Ekitaldian omendutako edo gonbidatutako pertsonen gastuak, salbu eta hori jarduera, lantegi edo ekitaldiaren erakustaldiaren testuinguruan egiten bada.

- Opariak, merchandising-opari eta -objektuak eta sariak dirutan, eta sari nahiz lehiaketetako gastuak.

- Ekitaldia egin aurreko eta ondorengo 15 egunetik gorako estaldura-epea duten aseguruak.

SUSTAPEN- ETA PUBLIZITATE-JARDUKETAK, IRUÑA HELMUGA TURISTIKO GISA NABARMENTZEN DUTENAK

a) Azoka, workshop eta aurkezpenetara joatea.

Beraratuen garraio-, ostatu- eta mantenu-gastuak. Kasu guztietan, gastu horiek entitate eskatzaileari zuzenean loturik egon beharko dute, behar bezala justifikaturik faktura sinplifikatuen bidez edo dagozkien ordainagiriak dituzten fakturen bidez, edo horien baliokideen bidez, kontratatutako hirugarrenen fakturen kasuan. Kontzeptu horri dagozkion laguntzen zenbatekoa pertsona/eguneko eta ekitaldi bakoitzeko emanen da; nazioko ekitaldia izanez gero, guztira 400 euroko laguntza emanen da, eta nazioartekoa bada, 800 euro.

Instalazioak azoka edo aurkezpenetan, eta, zehazki, zorua alokatzeari, standei eta materiala garraiatzeari dagozkion gastuak. Era berean, aurkezpenak egiten badira, barne hartzen ahalko dira aretoen alokairu-gastuak, bitarteko teknikoak (megafonia, pantailak...), materialen garraioenak eta aurkezpenaren xede diren materialena.

Joan-etorria auto partikularretan eginez gero, bidesari-, aparkatze- eta kilometraje-gastuak onartuko dira. Azken horiek kalkulatzeko, aintzat hartuko da entitate eskatzailearen egoitzatik azoka egiten den tokiraino dagoen km-kopurua, eta km bakoitzeko 0,35 € emanen da.



b) Argitalpenak, liburuxkak eta turismo-gidak

- Turista eta bisitariendako Iruña helmuga turistiko gisa nabarmentzen duten elkarteen Gidak, esku-orriak edo argitalpenak diseinatu, editatu, maketatu eta hizkuntzetan egokitzeko gastuak. Argitalpenak Elkartea osatzen duten enpresa edo entitate guztiak jasoko ditu, eta ez da banakako separatarik onartuko.
- Hizkuntzetan sektore turistikoari zuzendutako jasangarritasun eta irisgarritasun arloko sentsibilizazio-gidak, -eskuorriak edo -argitalpenak diseinatu, editatu, maketatu eta egokitzea.

c) Webguneak.

Lehendik badagoen webgunea erroz aldatzea dakarten egokitzapenak eta garapenerako laguntza teknikorako gastuak.

Edukiak itzultzeko, gailu anitzetara egokitzeko eta webgune nagusi batetik eratorritako mikrositeak egokitzeko gastuak.

Modalitate honetan EZ dira dirulaguntzaren xede izanen honako gastu hauek:

- Webgune edo sare sozialen domeinuei eta mantentze-lanei lotutako gastuak.
- Egungo webgune eta mikrositeetan egindako aldaketa ez funtsezkoak.
- Lehiaketetako edo zozketetako sariak.

SEKTORE-AHOLKULARITZAKO JARDUKETAK JASANGARRITASUN ETA IRISGARRITASUN ARLOAN

- Jasangarritasun- edo irisgarritasun-aholkularitzako kanpoko laguntza kontratatzekeo gastuak elkarteari zein Iruñean dauden espreseri zuzendua.
- Elkarteko langileen gastuak, jasangarritasun eta irisgarritasun arloko aholkularitza proiektuetarako berariaz kontratatzekeo; honako gastua onartzen ahal da:
 - 100 € (BEZa barne) aholkularitza jaso eta Iruñean dagoen enpresa bakoitzeko.
 - 300 € (BEZa barne) ECOLABEL ziurtagiria edo antzekoa erdietsi eta Iruñean dagoen enpresa bakoitzeko.
 - 350 € (BEZa barne) BIOSPHERE aitortpena erdietsi eta Iruñean dagoen enpresa bakoitzeko.

Oro har, EZ DIRA diruz lagungarriak izanen Osasun-klusterrari eta Bileretako turismoaren (MICE) Mahaiari lotutako elkarteek edo Osasun-klusterrak egindako ezein jarduera, baldin eta Iruñeko Udalak esparru horretan adostu eta diruz lagundu baditu.

Gastu diruz lagungarrietan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

BAI EZ

Honako hauek ez dira inoiz gastu diruz lagungarritzat joko:

- Inbertsioak
- Altzariak
- Online erreserbak egiteko zentralak edo hirugarrenen erreserba-motorrak

2. Diruz lagungarriak diren gastuak egiteko epea: 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI EZ



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Ehunekoak: % 80

Onuradunak inola ere ezin izanen du itunik egin honako hauekin, dirulaguntzaren xede diren jarduerak osorik edo zati batean burutzeko:

- Ordenantza honetako 10. artikuluan jasotako debekuren bat duten pertsona edo entitateekin.
- Kontratazioaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsonak edo entitateak.
- Eragiketaren kostu osoaren portzentaje bat kobratzen duten bitartekari edo aholkulariekin, non eta ordainketa hori egindako lan edo zerbitzuaren merkatuko balioa erreferentzia hartuta justifikatzen ez den.
- Onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateekin, baldintza hauek bete ezean:
 - Kontratazioa merkatuko baldintza normalen pean egitea.
 - Aldez aurretik organo emailearen baimena eskuratzea.
- Deialdi eta programa berean dirulaguntzarik eskatu eta eskakizunak ez betetzeagatik edo behar adina puntu ez lortzeagatik dirulaguntzarik lortu ez duten pertsonak edo entitateak.

OHARRA: Onuradunarekin lotutako pertsonatzat edo erakundetzat joko da haren barruan dagoena elkartekide, federatu edo antzeko figura gisa.

d) letran adierazitakoaren ondorioetarako, lotutako pertsonatzat edo entitateatzat hartuko dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan zehaztutako pertsonak edo entitateak.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Justifikatu egin behar da finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jarduerari aplikatzea: BAI EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak: % 50

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Zehazki, Udalak diruz laguntzen dituen jarduerak Nafarroako Gobernuak ere diruz laguntzeko aukera dagoen kasuetan, Iruñeko Udaleko Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorra Nafarroako Gobernuko Turismo Departamentuarekin koordinatuko da zehazteko administrazio bakoitzak zer nolako tratamendua emanen dion beste administrazioak eskatu, eman eta/edo ordaindutako dirulaguntzari, eta, edozein kasutan, bermatuko da bi administrazioek diruz lagundutako zenbatekoak –bestelako diru-sarreraren bidez finantzatuak–, guztira, ez duela gaindituko diruz lagundutako jardueraren kostua.

Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorrak Nafarroako Gobernuko Turismo Departamentuari jakinaraziko dizkio hala deialdi honek eragindako ebazpenak nola diruz lagundutako jardueren xehetasunak, eta departamentu horri informazio berdina eskatuko dio administrazio horrek kudeatutako dirulaguntzez bezainbatean.



Administrazioak edozein bitarteko erabilia ziur jakinez gero jarduerak hura egiteari zuzenean egotzitako diru-sarrerak eduki eta entitate onuradunak ez dituela aitortzen hala egiteko betebeharra izan arren, Administrazioak jarduera horretarako laguntza ukatuko du, edo, hala badagokio, itzularazteko prozedura hasiko du, betiere kalterik egin gabe egokitzen ahal zaion zehapen-prozedura abiatzeari.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gaineratik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua:

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zuzenaren artekoa: Behin dirulaguntzen gaineko ebazpena eman eta gero, dirulaguntzak guztira zenbat jo eta horren % 40 ordainduko zaie, aurrerapen gisara, entitate onuradunei. Ordaintzeke geratzen den % 60 ordainduko da behin deialdi honen P) letran aipatzen diren gastuen justifikazio-agiriak aurkeztu, justifikazioaren gaineko balorazio-txostena egin eta gastuei buruzko txostena aurkeztu eta gero.

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-beteberrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketak bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeak eratzeko:

BAI EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat). Justifikazioa Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) gaitutako izapidearen bitartez egin behar da: "Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa".

Diruz lagundutako jarduera dela-eta egindako gastuak oro justifikatuko dira, eta ez bakarrik Iruñeko Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren adinakoa.

Justifikazio-kontua jarraian aipatzen diren agiriekin osatuko dute, eta haiekin batera aurkeztu beharko dira egiaztagiriak (fakturak eta frogagiri gisa baliokide diren gainerako agiriak, dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatzen dutenak) eta deialdi honen IV. eranskina (TURISMOA SUSTATZEKO JARDUEREN JUSTIFIKAZIOA):



A) EBALUAZIO-MEMORIA

Diruz lagundutako jardueraren ebaluazio- eta justifikazio-memoria, benetan egindako jardueren deskribapena barne. V. eranskina.

DINAMIZAZIO-EKINTZAK ETA SUSTAPEN- ETA PUBLIZITATE-JARDUKETAK, IRUÑA TURISMO-HELMUGA GISA NABARMENTZEN DUTENAK. Gainera, egindako materialak eta sustapen ekintzak erantsiko dira, emaitzaren eta harreraren balorazioa, zein egin izanaren adibide grafiko bat barne.

o Ferien kasuan, zein feriatara joan eta horretan parte-hartzeari buruzko balorazioa jakinarazi beharko da.

o Webguneen kasuan, behar bezainbat azaldu beharko da memorian egindako aldaketak.

SEKTORE-AHOLKULARITZAKO JARDUKETAK JASANGARRITASUN ETA IRISGARRITASUN ARLOAN

Diruz lagundutako jardueraren ebaluazio- eta justifikazio-memorian honakoei buruz jakinaraziko da, besteak beste: aholkularitza programa, aholkularitza jaso duen entitateak, zenbat aholkularitza ordu izan diren, ea kuotarik ezarri den, eta orokorrean, programaren funtzionamenduari buruzko intereseko informazio oro. Enpresei aholkularitza eman izana egiaztatzeko, aholkularitza jaso duen lagun kopurua erantsi behar da, eta aholkulariak eta aholkularitza jaso duen enpresak –behar bezala identifikatutako datuekin– sinatutako jasangarritasun txosten bat.

B) JARDUERAK ERAGINDAKO GASTUEN ZERRENDA SAILKATUA, non honako hauek identifikatuko baitira: hartzekoduna, kontzeptua, zenbatekoa (BEZa xehaturik), jaulkitze-data eta ordainketa-data (V. eranskinean sartua). Jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerak edo dirulaguntzak xehe-mehe adierazita, horien zenbatekoa eta jatorria barne.

Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: fakturak, ordainagiriak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, betiere merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute eta horien zenbatekoa emandako dirulaguntzaren kargura ordaindu bada, modu korrelatiboan ordenaturik aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

Egindako gastuak osagai guztiak jasotzen dituzten fakturen bitartez egiaztatuko dira, eta inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiri hutsak edota kutxako tiketak. Fakturak indarreko legeekin bat jaulkiko dira, Fakturazio-betebeharrak arautzeko Erregelamendua onetsi zuen apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuarekin, eta, edonola ere, dirulaguntzaren eskatzailearen izenean jaulkita egon behar dute. Fakturretan zehazturik agertuko dira faktura egin duen enpresaren izena eta IFKa, fakturaren jaulkitze-data, kontzeptua, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehekapena. Agiriak jatorrizkoak izanzen dira. Kontratututako zerbitzuen hornitzaileak emandako jatorrizko PDF artxiboak eta dagokion bankuak emandako ordainagirien PDFak, diruz lagundutako gastuak egiaztatzeko agirien kopia simple gisa onetsiko dira. Nolanahi ere, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko 11.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzaren onuradunek organo kudeatzaileak zehaztutako egiaztatze-jarduketak egin beharko dituzte.

Ez dira kontuan hartuko, inongo kasutan, eskudirutan ordaindutako gastuak, baldin eta horiek esku hartzen dutenetako batek enpresaburu edo profesional gisara egindako eragiketei badagozkie eta gastuak 2.500 euro edo gehiago –eta atzerriko txanponen kasuan, balio bera– jotzen badute betiere Iruzzurren kontrako prebentzio-ekintzak eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzak areagotzearen tributuen eta aurrekontuen gaineko araudia aldatu eta finantza-araudia egokitzeko urriaren 29ko 7/2012 Legean ezarritakoarekin bat.

Zeharkako gastuez bezainbatean, diruz lagundu daitekeen kontzeptu bakoitzari dagokion guztizko gastua justifikatu beharko da, eta zeharkako gastuen egozte-irizpideak zehaztu beharko dira diruz lagundu daitekeen kontzeptuaren guztizkoari dagokionez. Sektore-aholkularitzako jarduketa horiek enpresaren beraren baliabideekin egin direla egiaztatzekotan, beharrezkoa da honako agiri hauek



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

aurkeztea: lan-kontratuaren kopiak, langileei dagozkien nominak, jasotzaileak sinaturik eta ordainduta, edo, bestela, bankuaren abonu-agiria, eta Gizarte Segurantzaren kotizazioei dagozkien ziurtagiriak.

C) HARTZEKODUNEI ORDAINDU IZANA EGIAZTATZEN DUTEN EGIAZTAGIRIAK. Ordaindu izana dagokion banku-agiri bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla egiaztatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

D) HALAKORIK BALITZ, APLIKATU GABEKO GELDIKINAK eta horiei dagozkien berandutze-interesak ITZULI IZANAREN ORDAINKETA-AGIRIA.

E) Justifikazio-AGIRIAK GARDENAK ETA EGIAZKOAK izateko legezko betebeharrarekin lotutako justifikazioa webguneko izapidean eginen da. Gardentasunari dagozkion legezko betebeharren menpe dauden entitateek soilik aurkeztu beharko dituzte agiri gehiago (zehazki, azken kontuak eta organigrama eguneratua, karguak, arduraldiak eta ordainsariak barne).

Aurkeztutako agiriak ikusirik, organo kudeatzaileak, egoki jotzen badu, entitate onuradunari jatorrizko agiriak aurrez aurre erakustea eskatzen ahalko du 10 eguneko epean, aurkeztutako agirien egiazkotasuna egiaztatze aldera.

Txosten bat eman beharko da Udaleko teknikari eskudun batek sinatuta, non espresuki adierazita geldituko baita guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.

Baldin eta benetako defizita edo benetako gastuak eskaera egitean aurreikusi eta dirulaguntzaren zenbatekoa hasiera batean zedarritzeko baliatutakoak baino txikiagoak badira, aintzat hartuko da inguruabar hori, eta proportzioan murriztuko da behin betiko eman behar den kopurua.

Halaber, proiektua neurri batean ez betetzeak dirulaguntzaren zenbatekoa itzultzea ekarriko du, edo, hala badagokio, kobratzeko eskubidea galtzea. Zein neurritan bete ez den zehazteko modua jarraian azaltzen dena izanen da.

Jardueraren justifikazio-agiriak jaso ondoren, egiaztatuko da jarduera aurrekontuan jasotako proiektuarekin bat egin dela, eta emakida-fasean proiektuak jasotako puntuak eta azkenik gauzatu den proiektuari dagozkionak bat datozela. Gauzatutako proiektuari dagozkion puntuak emakida-fasean emandakoak baino txikiagoak direla egiaztatzen bada, honela murriztuko da diruz lagundu beharreko zenbatekoa:

- Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutakoaren arteko aldea 1 eta 10 puntu artekoa bada, ez da ezer murriztuko, jardueran funtsezko aldaketarik ez dela egon ulertuko baita.
- Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutako jardueraren arteko aldea 11 eta 20 puntu artekoa bada, % 20 murriztuko da emandako zenbatekoa.
- Aurrekontuan jasotako jardueraren eta gauzatutako jardueraren arteko aldea 21 puntu baino handiagoa bada, % 50 murriztuko da emandako zenbatekoa.

Edozein kasutan, justifikazioaren fasearen ondoren, jarduera egiaztatzean ikusten bada jarduerak ez duela diruz lagundua izateko gutxieneko puntuazioa lortu, hau da, ez dituela 50 puntu lortu, emandako dirulaguntza osoa kobratzeko eskubidea osorik galduko da, edo, hala badagokio, dirulaguntza osoa itzuli beharko da.

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukiak: BAI EZ

Justifikazio-kontu erraztua.



Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Justifikazio-agiriak aurkezteko azken eguna 2026ko urriaren 15a izanen da.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietako batek ukitzen badu onuraduna, eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoia: BAI EZ

-Gastuak justifikatzeko agiri horiek ez aurkeztea, dokumentazioa osatugabea bada edo ezarritako epekin kanpo aurkezten bada.

- Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako gainerako arrazoia.

Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura Iruñeko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren IV. tituluko II. kapituluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.



S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

--

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

<input checked="" type="checkbox"/> I. ERANSKINA. JARDUERAREN AZALPEN-MEMORIA.
<input checked="" type="checkbox"/> II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN INGURUAN.
<input checked="" type="checkbox"/> III. ERANSKINA. BAZKIDE-KOPURUARI ETA IRUÑEKO BAZKIDE-KOPURUARI BURUZKO ADIERAZPENA.
<input checked="" type="checkbox"/> ERANSKIN OSAGARRIAK. <small>- IV. ERANSKINA. TURISMOA SUSTATZEKO JARDUEREN JUSTIFIKAZIOA. - V. ERANSKINA. JARDUERAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA.</small>

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*